

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2023ko urtarrilaren 26a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:40

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Iburguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 1/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko bake-epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamena.

- 3.- Onartzea, egoki bada, udal-langileen ordainsarien 2023rako igoera eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien igoera.
- 4.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 1/2023 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 1/2023 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 911.000 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2023ko urtarrilaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA udal-aurrekontu propioaren 1/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 911.000 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

2.-ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO BAKE EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Idazkariak irakurri egiten ditu barrutiko Bake Epaitegiko epaile titularra eta epaile ordezkoa aukeratzeko aplikagarriak diren lege-arauak eta irakurtzen ditu, baita ere, horretarako irekitako espedientean gaurko egunera arte ageri diren diligentziak eta jarduerak.

2022ko abenduaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (233. zenbakia) eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarkiaren bidez, Orioko Udalak jakinarazi zuen, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 99.etik 103.era arteko artikuluetan eta bake-epailei buruzko ekainaren 7ko 3/95 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, udalbatzarrari dagokiola pertsonak aukeratzeko bake-epaile titular eta bake-epaile ordezkoko izendatuak izateko; interesa duten pertsonak instantzia aurkeztu behar dute udaletxeko erregistro nagusian, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita eguneko epearen barruan; interesatuek instantzian jaso behar dute exijitutako betebeharrak guztiak betetzen dituztela, eta agiriak aurkeztu behar dituzte, hori frogatzeko eta ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez dutela frogatzeko; hautagaiek erantsi behar dute, baita ere, txosten labur bat, beren hautagaitzaren egokitasuna arrazoituz eta behar diren xehetasunak emanez hori baloratzeko; behin instantziak aurkezteko epea bukatuta, udalbatzarrak aukeratuak dituzten bake-epaile titularra eta bake-epaile ordezkoa aurkeztu direnen artean, baldin eta legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; hautagaitzarik ez balego, udalbatzarrak libreki aukeratuak dituzte, ezarritako prozedurari jarraituz, eta eskumena duen jurisdikzio-organoari jakinaraziko dio gero.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, udalbatzarraren eskumena da bake-epaile titularra eta bake-epaile ordezkoa aukeratzeko proposamena egitea; erabakia udalbatzarkideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin hartu behar da (hau da, hamahiru udalbatzarkideen gehiengo osoaren aldeko botoekin).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2023ko urtarrilaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- ARITZ GONZALEZ ELIZONDO AUKERATU ETA PROPOSATZEA Orioko Bake Epaitegiko bake-epaile titular kargurako. Hala ere, kargua betetzeko, proposatutako pertsonak espresuki onartu beharko du eta, aldi berean, aitorten bat aurkeztu beharko du, adieraziz ez dagoela sartuta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta bake-epailei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan aurreikusitako kargu judizialak betetzeko ezgaitasunik edo bateraezintasunik kausetako batean.

2.- ANE ARRIOLA LARRETA AUKERATU ETA PROPOSATZEA Orioko Bake Epaitegiko bake-epaile ordezkoko kargurako. Hala ere, kargua betetzeko, proposatutako pertsonak espresuki onartu beharko du eta, aldi berean, aitorten bat aurkeztu beharko du,

adieraziz ez dagoela sartuta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan aurreikusitako kargu judizialak betetzeko ezgaitasun edo bateraezintasun kausetako batean.

3.- BIDALTZEA udalbatzarraren erabaki honen hitzez hitzezko ziurtapena Euskadiko Justiziako Auzitegi Gorenaren presidenteari, karguak betetzeko proposatutako pertsonen berariazko onarpenekin eta ezgaitasun edo bateraezintasun kausatan sartuta ez daudela dioten aitorenekin batera, dagozkion izendapenak egin ditzan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.3 artikulua ezarritakoaren arabera.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-LANGILEEN ORDAINSARIEN 2023RAKO IGOERA ETA KARGUA DEDIKAZIO OSOAREKIN EDO PARTZIALAREKIN BETETZEN DUTEN UDAL-KORPORAZIOKIDEEN ORDAINSARIEN IGOERA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Igoera horren oinarrian Estatuaren 2023ko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.2 artikuluan ezarritakoa dago.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2023ko urtarrilaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udal-langileen ordainsarien 2023rako igoera eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien igoera, era honetan:

- 2023. urtean, sektore publikoko langileen ordainsariak ezin izango dute %2,5etik gorako igoera globalik izan 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, alderatutako bi aldiak homogeenak izanik bai langile kopuruari eta bai horien antzintasunari erreparatuta.
- Era berean, igoera hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien gainean (bi kasuetan, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina igoerak):
 - a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari lotutako gehikuntza. 2022ko KPIHaren eta 2023ko irailean aurreratutako KPIHren batura % 6 baino handiagoa bada, gehienez ere % 0,5eko igoera gehigarria aplikatuko da ordainsarrietan.

Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2023ko irailean aurreratutako KPIHaren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartuko da, eta erabaki hori BOEn argitaratuko da.

- b) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalaren 2023ko bilakaerari lotutako gehikuntza. BPG nominalaren gehikuntza Gobernuak Aurrekontuei buruzko Legearekin batera datorren taula makroekonomikoan kalkulaturakoa bezalakoa edo handiagoa bada, % 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.

Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2023ko irailean aurreratutako BPGaren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartuko da, eta erabaki hori BOEn argitaratuko da.

4.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,